



Arartekoaren 2013ko uztailaren 3ko ebazpena. Horren bidez, Elorriko Udalari gomendatzen zaio beharrezko neurriak sustatzea, lokal partikular batean kontserbazio-, higiene- eta osasungarritasun-betebeharrak betetzeko.

Aurrekariak

1. Pertsona bat Arartekora joan zen, guri jakinarazteko 2011. urtetik eragozpenak izaten ari dela, Elorriko (...) kalearen (...). zenbakian duen bizilekuaren azpiko lokal bateko higiene- eta osasungarritasun-gabeziaren ondorioz.

Zehazki, erreklamazioan azaldu zuen lokalean karraskariak ugaritzen hasi direla, lokala ez erabiltzeagatik, ez garbitzeagatik eta mantentze-lan egokiak ez egiteagatik bertan.

Pertsona horrek planteatu zuen jabeen komunitateak Udalari esku hartzeko eskatu ziola, lokala segurtasun-, osasungarritasun- eta apaindura-baldintza egokietan egon dadin.

Kexa-idazkian adierazten digun bezala, Elorriko Udalak jakinarazi dio lokal hori udalerriko arratoiak hiltzeko ibilbidean sartu duela. Hala ere, neurri horrek ez du balio izan osasungarritasun-arazoa konpontzeko.

Hori dela eta, pertsona horrek planteatzen digu, lokalaren jabearen pasibotasuna ikusita, administrazio horrek aztertzea lokal horren antolaketa-, segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzak berak bermatu ahal izango lituzkeela.

2. Erreklamazio hori izapidetzea onartu ondoren, 2013ko apirilean, Arartekoak Elorriko Udalari informazioa eskatu zion aipatu eskaerari emandako izapideari buruz, lokalaren osasungarritasun-betebeharrak betetzea eskatzeko.

Gure eskaerari erantzunez, alkateak 2013ko ekaineko txosten bat bidali digu, non Udalak gai horren inguruan zer jarduketa egin dituen jasotzen duena.

Hala, 2012ko otsailean lehen salaketa bat jaso ondoren, Elorriko Udalak erabaki zuen –2012ko apirilaren 7ko alkatetzaren ebazpen baten bidez– betearazteko agindu bat ematea, lokalaren enpresa titularrari zuzendua. Agindu horretan, lokala garbitu eta desinfektatuko zela, eta lokaleko arratoiak hilko zirela bermatzeko esku-hartze multzo bat hartu ziren kontuan. Ebazpen horretan, Udalak adierazi zuen agindua betearazlea zela eta zer neurri hartzea aurreikusita



zegoen, agindua arrazoirik eman gabe ez bazen betetzen. Ebazpena lokalaren enpresa titularraren ordezkari bati jakinarazi zitzaion.

Hala ere, jabetzak ez zuen kudeaketa bakar bat ere egin, eta hori zela eta, Elorriko Udalak agindu zuen udalerriko arratoi hilketan espezializatua den enpresak aldiro-aldiro egiten duen ibilbidean sartuko zuela .

Bidalitako informazioa ez dago jasota beste udal-jarduketarik lokalaren segurtasun-baldintza egokiak egiaztatzeko eta bermatzeko.

Pertsona sustatzaileak bidalitako informazioaren arabera, neurri horiek ez dira nahikoak izan 2011. urtetik duten osasungarritasun-arazoa behar bezala konpontzeko.

Erreklamazio hori ikusita, kexaren planteamendua eta Udalak bidalitako informazioa aztertuta, egokitzen jo dugu gogoeta hauek zuri bidaltzea:

Gogoetak

1. Kexa-espedita honetan, gure esku-hartzearen helburua da (...) kaleko (...). zenbakian kokatutako lokalaren abandonatzea, higiene-gabezia eta osasungarritasun-eza saihesteko Udalak jarraitu dituen jarduketak aztertzea.

Kasu honetan, Elorriko Udalak jakinarazi digu zer neurri hartu dituen aipatu lokala baldintza egokietan mantentzeko betebeharra egiaztatzeko eta bermatzeko.

Batez ere, lokalaren enpresa titularrari zuzendutako agindu betearazlea –2012ko apirilaren 7koa- jasotzen da, bai eta lokala garbitu eta desinfektatuko zela, eta lokaleko arratoiak hilko zirela bermatzeko esku-hartze multzo bat ere.

Ebazpen horrek 10 eguneko epea jarri zuen lan horiek egiteko. Ondoren, jabeak betebeharrak ez zituela bete ikusita, Udalak lokala udalerriko arratoiak hiltzeko lanen ibilbidean sartu du, eta atzeko zuloen bidez egin nahi dute lan hori.

2. Aipatu behar da udal-jarduketak hirigintza-legedian aurreikusitako esparruaren arabera egin direla. Hirigintza-diziplinaren esparruan, lokalaren jabeek lokala segurtasun-baldintza jakin batzuetan izateko betebeharra dute,



osasungarritasun eta apaindura publikorako arriskuak eta pertsona eta gauzentzako arriskuak saihesteko.

Betebehar hori lokalaren jabeari dagokio. Kasu honetan, udal administrazioak betebehar hori betetzen dela bermatzeko eskumena du, dagokion espedientea eginez, eta dagozkien txosten teknikoak lortu ondoren, dagozkien betearazteko aginduak ematekoa.

2/2006 Legearen 199. artikulua esleitzen du eskumen hori (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Lursailen jabeek lokalak segurtasun-, osasungarritasun- eta apaindura publikoko eta duintasunezko baldintzetan edukitzeko betebeharra dute.

Xedapen horretan, zehazki 199.3. artikuluan, 203. artikuluekin lotuta, ezartzen da tokiko administrazioen betebeharra dela dagozkien betearazteko aginduak ematea, lursailen eta eraikuntzen jabeak derrigortzeko beren jabetzak segurtasun-osasungarritasun eta apaindura-baldintza egokietan izatera.

Hirigintza-legedian aurreikusitako prozeduraren arabera ezarritako betearazteko aginduak betetzekoak dira. Arrazoirik eman gabe ez badira betetzen, administrazioa gaituta dago dagozkien neurriak hartzeko agindu hori bete dadin (betearazte subsidiarioa, hertsatzeko isunak, etab.), 2/2006 Legearen 203. artikuluan aurreikusitako neurriak hain zuzen (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa).

3. Ildo horretan, lokalaren kanpoaldean arratoiak hiltzeko lanak ez dira nahikoak izan. Era berean, udal ebazpena egin zenetik 14 hilabete baino gehiago igaro dira, eta erreklamatzailerik behin eta berriz esaten dute aipatu neurriak oraindik betearazi gabe daudela.

Hori dela eta, udalak bere eskumen horiek erabili behar dituela jakinda eta lokalaren titularrari dagozkion prozedurazko bermeen arabera, Elorrioko Udalak aipatu administrazio-espedientearekin jarraitu beharko luke, dekretuz agindutako neurriak behar bezala eta eraginkortasunez gauzatzen direla bermatzeko, eta hala, pertsonen aldi baterako kalteak saihesteko eta edozein osasungarritasun-arazo erremediatzeko.

Hori dela eta, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen, Arartekoa sortu eta arautzen duenaren, 11.b) artikuluan agindutakoari jarraiki, honako hau egiten da:



Gomendioa

Elorriko Udalar, 2012ko apirilaren 7ko alkatetzaren ebazpenean adostutako neurriak betetzea susta dezan. Neurri horien helburua da (...) kaleko (...). zenbakiaren etxabeetan kokatutako lokala garbitu eta desinfektatzen dela eta bertako arratoiak hiltzen direla bermatzea.

Hala dagokionean, eta aurreikusitako prozeduraren arabera, 2/2006 Legearen 203. artikuluan jasotako neurriak hartzeko, ondo eta eraginkortasunez bete daitezzen (2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa).

Erreklamatzaileri jakinarazteko udalak zer neurri hartu dituen aurkeztutako salaketen inguruan .

